

1. TXOSTENA

EUSKADI NAZIOA EUROPAN:

BURUJABETZA, NORTASUNA ETA HELBURU POLITIKOAK

AURKIBIDEA

1	HITZAURREA	3
2	AURREKARI HISTORIKOAK.....	5
3	EGUNGO EGOERA	8
3.1	Globalizazioaren ondorioak	8
3.2	Demokrazia liberalaren krisia.....	9
3.3	Eraldaketa politikoak Euskadin	10
3.4	Eraldaketa sozialak Euskadin	11
4	HELBURU POLITIKOAK.....	12
4.1	Euskadin demokrazia indartzea	12
4.2	Euskadiren nazio aitortza.....	13
4.3	Euskadi Europan indartzea, autogobernuaren eta burujabetasunaren dimentsio nagusia	14
4.4	Euskal nortasuna sendotzea testuinguru askotariko, konplexu eta anitz batean	14
4.5	Euskal gizartearekin kontratu sozial berri bat adostea, gizarte ongizatearen oreka berrezartzeko	15
5	NAZIO NORTASUNEAN ETA AUTOGOBERNUAN EAJ-PNV-K GAUZATZEN DUEN ESTRATEGIAREN PRINTZIPIOAK.....	16
6	PROPOSAMENAK ETA JARDUERAK	17
6.1	Burujabetza	17
6.2	Nortasuna.....	18
6.3	Herrigintza eta elkarlana.....	19
6.4	Zientzia eta ezagutza.....	20
6.5	Gizartearen eraldaketa	20
6.6	Erakundeen lana eta aliantza politikoak	21

1 HITZAURREA

Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV), Sabino Arana Goirik 1895. urtean sortu zuenetik Euskal Nazioaren eraikuntza lideratu duen erakunde politikoa den aldetik, bere printzipio eta baloreei eutsiz, bere Batzar Nagusietan egin ohi du bere jarrera politikoak eta helburuak eguneratzeko ariketa, bai eta bere estrategiak eta horiek gauzatzeko ildo eta proposamenak ere. IX. Batzar honetan gure helburua da Alderdiak jarrai dezan herriaren zerbitzura eta eginkizun horren burutza, ezagutzen dugun mundua abiadura handiz eraldatzen ari diren askotariko aldaketak ulertuz. Aldaketa sakonak eta arinak ematen ari dira politikan, ekonomian, gizartean, demografian, kulturen, gobernantzan, geoestrategian eta bloke dinamikan. Erronka globalak dira, klima aldaketa kasu, planeta osoko eragileei eragiten diena. Aldaketak, iraultza digitala kasu, ezagutza eskuratzeko eta transmititzeko moldeei eragiten dietenak, bai eta elkarren arteko harremanei ere, komunitatea eraikitze orduan eta elkarbizitzan. Aldaketok derrigortzen gaituzte gure estrategia eta proposamenak aldatzera, gure antolatze moduan eta politika egiteko eran nabarmen eragingo baitute.

Abiapuntu horrek behartzen gaitu politikagintzan berritzeko konpromiso horizontala hartzera, gobernantzan proiektatuz eta autokonplazentziatik ihes eginez, gure Herriaren zerbitzura etengabe lan egiteko borondateari eutsiz. Egitura, dinamika eta kolektibo sozial berriek aintzatespena, hurbiltasuna eta harreman proaktiboak eskatzen dituzte. Gure jarrerak argitzera ere behartzen gaituzte, Alderdi gisa ditugun erantzukizunen eta erakundeetatik egin beharreko lanaren artean. Hala, alderdi gisa eta alderdikide bakoitzaren aldetik gizartearekin eta eragile guztiekin izango ditugun harremanak zuzenak, gardenak eta horizontalak izan beharko dira. Epe laburreko ikuspegi politikoak gaingitzea dugu helburu, asmo handiko erabakiak hartzeko, etorkizunean pentsatuta. Hiritargoa inplikatu nahi dugu euskal gizartearen arazoei aurrea hartzeko politikagintzan. Herri gisa eta herritar gisa dagozkigun eskubide zibilak, eskubide politiko eta sozialak barne hartuko dituen eta horrek dakartzan zereginarekin uztartuko dituen kontakizuna sustatu nahi dugu.

Txosten honen bidez gogora ekarri nahi ditugu honaino ekarri gaituzten aurrekariak, eta aldaketa hauek ematen ari diren testuingurua deskribatuko dugu. Agiriak egoeraren diagnostika egiten du eta aldaketen interpretazio bat proposatzen du, euskal 'demos' delakoa abiapuntutzat hartuz, Euskal Herria handien artean bizirautea baino askoz gehiago nahi dugulako. Ekarpen bat izan nahi du, eraldaketa handiak ematen ari diren egoera batean, non Estaturik gabeko hainbat nazio gure nortasuna eta helburu kolektiboak era global eta teknologiko honetan garatzen jarraitu nahi baitugu. Helburu hori lortzeko eskubidea dugu hasiera-hasieratik, eta egingo dugu munduko nazio guztiek dituzten baldintza beretan, gure eskubide eta betebeharrei uko egin gabe.

EAJ-PNVk euskal nazioaren subiranotasun osoa du helburu, eta bere etorkizuna askatasunez erabakitze eskubidea instituzionalizatzea nahi du, giza eskubideen, demokraziaren, askatasunaren, berdintasunaren, aitorpenaren, aniztasunarekiko errespetuaren, bakearen, elkarbizitzaren, aurrerapen ekonomikoaren eta justizia sozialaren aldeko ahalegin argi eta garbitik abiatuta. Herri eta nazio gisa ditugun asmoak Europar Batasunaren baitan kokatzen ditugu, hura ordezkatzen duten balioen eta printzipioen barruan. Printzipio horiek abiapuntutzat hartuz eta gure nazioaren prozesua garatzen den funtsezko esparruetatik, Europar eskubide osoak izango dituen nazio izateko, subiranotasun eta identitate arloan dituen helburuak azalduko ditugu, baita hori lortzeko ditugun baliabideak eta bide horretan aurrera egitea ahalbidetuko diguten proposamenak ere. Esandako printzipio horiek, funtsezko hamar ideiatan oinarrituta daude:

a) Euskal herritarrek subjektu politiko gisa. Euskaldunok Herri bat osatzen dugu, kideatasun-sentimendu bat dugulako, gizabanako aske eta gure buruaren jabe garen aldetik dagozkigun eskubide indibidualak baliatuta. Herri bat, "demos" bat, herritar talde batek osatua eskubide batean eta sentimendu eta interesen komunitatean oinarritua, komunitate nazionalak identifikatzen dituen subjektu politikoa izanik.

Nortasun propioa duen herria, ondare historiko, sozial eta kultural bereziarekin, euskara berezko hizkuntza duena. Zazpi lurraldetan finkatutako nazioa (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Behenafarroa, Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa), hiru eremu juridiko-politikotan antolatuta (EAE, NFK, Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoa) eta bi estatutan (espainiarra eta frantsesa). Komunitate horren barruan ere badaude eremu geografiko berean dauden barrendegiak, hala nola Trebiñu Konderria eta Villaverde Harana.

b) Printzipio demokratikoak eta erabakitzeko eskubidea. Herri baten askatasun-sentimendua eta demokrazia-nahia edozein jarrera inposatzailerengainetik daude, nahiz eta jarrera hori legeetan edo aldaezin jotzen diren Estatuaren Konstituzio edo muga koiunturaletan jaso nahi izan. Herri batek erabakitzeko duen eskubidea, batez ere, printzipio demokratikoa da, eta, beraz, integratzailea eta modernoa. Europarra eta europazalea da nagusiki, gurea bezalako Herri ireki baten nortasuna sendotzen duen tresna, mundu globalizatu eta interkonektatu baterantz daramana. Lehiakortasunerako eta garapen ekonomiko eta sozialerako tresnak eskaintzen ditu norberarentzat eta hurkoarentzat, eta egonkortasun politikoa ematen du, beste herri batzuekiko harremanak elkarrekiko errespetu demokratikoaren arabera ehuntzea ahalbidetzen duen neurrian.

c) Eskubide besterenezina eta dinamikoa. EAJ-PNVk uste du erabakitzeko eskubidea besterenezina dela. Eusko Legebiltzarrak 1990eko otsailaren 15ean aldarrikatu zuen lehen aldiz Euskal Herriaren autodeterminazio-eskubidea. Herri batek egikaritu ahal izango du edo ez; bere historiako une bat edo bestea aukeratu ahal izango du hori erreklamatzeko; erabaki-egintza bat aukeratu ahal izango du plebiszitu gisa; pixkanaka eta modu jarraituan gauzatu ahal izango du. Ezin dio uko egin eskubide horri, eta ezin zaio indarrez kendu.

d) Erabakitzeko eskubidearen adibideak Europan. Europar Batasunaren sorrera da historian eta geografian gertuen ditugun printzipio horien adierazpen argia. Bere sorreran, Europar Batasunak Europako aniztasuna aitortzea eta errespetatzea erabili zuen bake- eta bizikidetzazko prozesu baten oinarri gisa, eta prozesu horrek subiranotasunaren borondatezko lagapen partekatua eskatzen zituen. Estatu bat Batasunari atxikitzearen prozesua bera edo Alemaniako Batasuna bezalako prozesuak herrien autodeterminazio-eskubidearen adibide dira. Batasuna esperientzia arrakastatsua da, printzipio sinpleetan eta demokratikoetan oinarritzen delako: herrien arteko errespetua eta onarpena, atxikimendu eta elkartze askea, erabakitzeko eskubidea, adostasun askea eta berdinen arteko lankidetzaz. Horregatik, erakunde originala da, erakunde propioak dituen, barne-ordenamenduen gainetik dagoen Zuzenbidea sortzen duena (Erkidegoko Zuzenbidearen nagusitasuna). Estatu kideek beren subiranotasunaren zati bat erakunde horri transferitzen diote, modu itzulgarrian bada ere, gainerako bazkideekin batera baliatzeko, ondasun eta onura komun baten mesedetan. Esparru horretan, Euskadik subjektu politiko gisa aitortu nahi du bere burua, eta, beraz, nazio gisa.

e) Europako subiranotasun partekatua. XXI. mendean eta Europako federalizazio-prozesu irekian gaudela, ez da ideia ona integrazio-prozesu hori garatzeko orduan eraginkorrak ez direla frogatu duten estatu-egiturak mimetikoki klonatzea. Europako integrazio politikoa estatu-subiranotasun klasikoaren paradigma aldatu du, subiranotasun hori partekatzean oinarritutako eredu garatuz, subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioak betez, erronka eta arazo komunei irtenbidea emanez, estatus gaundiko sare baten barruan.

f) Berrikuntza politikoa eta subiranotasuna XXI. mendean. Subiranotasuna aldatu bada ere, neurri batean, funtsezko muin bati eusten dio, nazio batek subjektu politiko gisa parte har dezan subiranotasun hori gauzatzeko arloak eta prozedurak negoziatzen dituen prozesuan. Berrikuntza politikotik bultzatu behar ditugu gure nazio-nortasuna eta gure subiranotasuna aitortzeko eta errespetatzeko formulak, borondate hori ordenamendu juridikoan instituzionalizatzeko, demokratikoki adierazitako herri-borondatean oinarrituta. Prozesu hori mailakatua izango da, eta Europar Batasunean protagonismo, eragin eta parte-hartze handiagoa lortzeko aukera guztiak sortu behar ditugu.

g) Errealitate instituzionalak abiapuntu gisa. Gure errealitate instituzionaletako batzuek, hala nola gure egungo erakundetzearen oinarri juridikoak, Itunak eta Hitzarmenak ematen dizkiguten eskubide historikoek eta zerga- eta finantza-subiranotasunak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak berariaz aitortuak eta legitimatuak, erakunde-esparru berriak garatzeko abiapuntu bat dagoela egiaztatzen dute.

h) Europar Erregelamendu bat autodeterminazio-eskubidea gauzatzeko. Europar erregelamendu artikuluduna proposatu dugu, autodeterminazio-eskubidea gauzatzeko aukera Batasunaren ordenamenduan jasota egon dadin. Bertan defendatzen da nazio guztiek dutela subiranotasuna partekatze formatua erabakitzeko eskubidea, baita eman nahi zaien esparru juridiko-politiko erabakitzeko eskubidea ere. Horregatik, proposamen honek ez du aurrejuzgurik egiten, eta baliagarria da Europako esparruan autonomia politiko batetik eskema federal baterantz joateko edo Estatua eraikitze. Une historiko bakoitzean aukeratzen den esparru politiko zehatzetik harago, nazio baten eskubiderik besterenezinena da subjektu politiko gisa aitortua izatea, bere nortasuna errespetatua izatea eta bere artikulazio politiko propioa erabakitzeko gaitasunari eutsi ahal izatea.

i) Europa demokratikoagoa eta solidarioagoa. Europa indartsuagoa defendatzen dugu, batuagoa, demokratikoagoa, herritarrengandik hurbilagoa, subsidiarioagoa, solidarioagoa, estrategikoki burujabeagoa, jasangarriagoa eta digitalagoa, eta ekonomikoki eta teknologikoki lehiakorragoa. Benetako eragile globala izan dadila egungo erronkei aurre egiteko, eta gaitasuna izan dezala atzerri- eta segurtasun-harremanen arloan Europar Batasunaren balioak eta printzipioak munduan proiektatzeko. Laburbilduz, Europa federal demokratikoa, aurrerabidean dagoena, solidarioa eta bakean dagoena, Euskadik bere ikuspegia eta indarguneak eskaini ahal izan ditzan.

j) Erakunde sendoak eta aitorpen demokratikoa. Globalizazioaren agertokian gure etorkizuna erabakitzeko aukera izan dezagun, indartsuak izan behar dugu herri gisa, erakunde demokratiko sendoekin eta sare ekonomiko, sozial eta kultural aske eta arduratsu batekin, eta komunitate-senarekin. Aitorpen demokratikoa eta tresna politiko eta ekonomikoak behar ditugu, eta Euskal Herriak ezarriko du une bakoitzean horien muga. Euskal herritarren nahia izango da, aurrerantzean ere, ahalik eta kohesio ekonomiko eta sozialik handiena, segurtasun eta aukera-berdintasunik handiena eta oparotasun eta askatasun indibidual eta kolektiborik handiena lortzea.

2 AURREKARI HISTORIKOAK

EAJ-PNV duela 130 urte Euskal Herrian sortutako erakunde politikoa da, euskal herritarrek nazio bateko kide diren aldetik dituzten eskubideak erabat instituzionalizatzeko. Gure patuaren jabe izan nahi dugu, Europako eta munduko herriak bezala. XIX. mendean sortu ginen, foru-erregimenaren eta haren erakundeak indarraren bidez abolituak izateari erantzun bat emateko, landa-gizarte batetik industria-gizarte batera igaro ginenean, eta horrek asaldura politiko, ekonomiko eta sozialak eragin zituen. Gai horiei erantzuteko, euskal nazioari dagozkion eskubideak aitortzea jarri zen helburu nagusitzat, eta, horrela, garaiko modernitatearekin konektatzea lortu zen, Europako beste nazio asko estatu bihurtzen ari ziren garaian.

Orduan eta orain, Euskal Herriak unean-unean eskatuko dituen helburuekin bat etortzea da gure ahalegina, erakartzea, lideratzea. Horretarako hartzen dugu, pertsonen eta komunitatearen zerbitzura dagoen ikuspegi errealista eta pragmatiko batetik proposamenak planteatzeko konpromisoa. Oinarrizko eskubideen errespetutik eta humanismo sozialetik eraikitako ikuspegi batetik, ekarpen eraldatzaile eta eraginkorrak babestu ditugu. Aukera eman digute pixkanaka autogobernu eta erakunde mailak berreskuratzeko, hori gauzatzeko. Garapen ekonomikorako eredu propio bat jarri dugu abian, garapen sozialarekin, sinetsita

baikaude ez dagoela gizarte oparorik, ez eta adostasun posiblerik ere, herritarren artean desparekotasuna badago eta kideetako batzuk baztertuta badaude.

Dinamika horrek eta prozesu berean interesa zuten beste herri batzuekin izandako harremanek Versaillesko Bake Konferentzia eta XX. mendeko bigarren hamarkadan Nazioen Ligan parte hartzea ahalbidetu ziguten. Balio demokratikoen aldeko apustu irmoak eta oinarrizko eskubideen defentsak eraman gintuzten nazismo eta faxismoari, Primo de Riveraren diktadurari, diktadura frankistari, Frantziako Estatuaren joera uniformatzaileei, ETAren terrorismoari eta Estatuaren aparatuek bultzatutako "gerra zikina" izenekoari, GAL kasu, aurre egin behar izatera. Jazarpena, fusilamenduak, kartzela, errepresioa, klandestinitatea eta erbestea jasan ditugu. Joan den mendean Europa suntsitu zuten totalitarismoen biktima izan ginen, eta haiek desagerrarazteko helburuan aliatu genituen nazioen ondoan borrokatu ginen. ETak eta bere aldekoek inoiz ordezkatu ez duten herri baten izenean proiektu totalitario bat indarrez inposatzeko egin zuten estrategia arbuia genuen, eta haren kontra egin genuen. Estrategia haren bidez bilatzen zen gure herriaren borondatetik sortu ziren benetako euskal instituzioen izen ona zikintzea eta haiei zilegitasuna kentzea, Euskadiren garapenerako eta bakean eta askatasunean bizi ahal izateko funtsezko autogobernu-tresnak diren arren.

Lehenengo Autonomia Estatutuak eta Agirre lehendakaria buru zuen Euzko Jaurlaritzak mugarri bat ezarri zuten giza duintasuna, askatasuna, demokrazia, berdintasuna eta giza eskubideak bezalako balioak sustatzeko orduan, nazio gutxituetako pertsonen eskubideak barne. Horrela egin dugu aurrera euskal nazioaren erakundetze bidean. Hasiera batean euskal lurraldean eta erbestean ondoren. Espainiako Gerra Zibilaren ondoren, EAJ-PNVko liderrak Nazioarteko Talde Berrietan (NEI) sartu ziren, Europako demokrazia kristauaren hastapenean, eta gaur egun Europar Batasuna denaren sorreran parte hartu zuten. Gainera, eztabaida haietan Euskal Herriaren eskubideak errespetatzearen eta aitortzearen alde agertu ginen, eta gaur egun 'Europako eredu soziala' denaren alde gaude. Horiek dira gaur egun ere gure nortasunaren eta ekintza politikoaren funtsezko ezaugarriak. Gure idealei eusteak ekarri zigun Internazional Demokristautik kanporatuak izatea, Espainiako Partido Popularrak kolonizatu ondoren, haren dinamikak aldatuz eta sorrerako printzipioetatik urrunduz. Horregatik, 2004an Europako Alderdi Demokrataren sorreran parte hartzea erabaki genuen.

Hirurogeiko hamarkadan, gure alderdiaren zeregina funtsezkoa izan zen gizarte zibila antolatzeke, euskara berreskuratzeko eta kultura-egiturak modernizatu, hezkuntza-egiturak bultzatu eta ekonomia eraldatzen duten mugimenduak antolatzeke. Prozesu horrek ere indartu zituen kideetako sentimendua eta nazio nortasuna. Diktadorea hil zenean, 1977an, Iruñean egin genuen "Batasuna eta Indarra" izenburuko batzar historikoa, garai politiko berriari aurre egiteko oinarri estrategiko eta programatikoak finkatzea ekarri zuena. Lehenengo Estatututik sortutako erakundeak berreskuratzea eta indartzea eta indarkeria helburu politikoetarako baliatzea legitimatzen zuen estrategia oro irmo baztertzea izan ziren gure funtsezko erabakiak. Horrela sortu zen Gernikako Estatutua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeetarako, eta 1979ko urriaren 25ean egin zen erreferendumean berretsi genuen. Nafarroan, Forua Berrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoa ez zen erreferendumera eraman. Gure lehengo historiaren eta egungo erakundeen arteko lotura dira gure eskubide historikoak, gure iraganaren eta orainaren arteko lotura-puntuak, euskal nazioaren eskubideak eguneratzeko borondatea legitimatzen dutenak.

Abstentzioaren alde agertu ginen Espainian 1978ko Konstituzioaren erreferendumean, gure eskubide nazionalak erabat instituzionalizatzea eragozten zuelako eta Espainiako nazioaren banaezintasuna ezartzen duelako, armada lurralde-osotasunaren bermatzaile gisa aipatzeaz gain. Horrela, euskal nazioa politikoki egituratzeko beste aukera batzuk marko demokratikotik kanpo uzten dira. Hala ere, Gernikako Estatutuaren alde agertu ginen, EAEko oinarrizko erakunde-araua den aldetik, tamalez oraindik bere osotasunean bete gabe dagoena. Bere lehen artikuluan jasota dago gure nazioaren adierazpenaren zerbitzura dagoen tresna dela. Adierazpen horrek ez du esan nahi gure eskubide historikoei uko egin behar zaienik, eta eskubide horiek

erabat berreskuratzea aldarrikatzen dugu, Xedapen Gehigarrian zehazten den bezala. Horrela, gainera, atea irekitzen zaio Nafarroa sartzeari, herritarrek askatasunez eta demokratikoki hala erabakitzen badute. Espainiako Konstituzioak ere, Laugarren Xedapen Iragankorraren bidez, aukera hori jasotzen du, eta berariaz berresten du Nafarroa Euskadin sartzea, xede horretarako bakarrik deitutako erreferendum baten bidez.

Estatutua, azken batean, Estatuarekin egindako itun bat da, eta aukera eman digu Ekonomia Ituna eta Hitzarmena, Euskadiko eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Ertzaintza eta Foruzaingoa edo Euskal Irrati Telebista (EITB) bezalako erakundeak zutik jartzeko eta kudeatzeko. Gainera, politika publiko asko jarri ditugu martxan, eta gure Herria jarri dugu nazioartean aintzatetsia izateko moduan.

Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) 2023-2024ko txostenean argitaratu duen metodologia aplikatuta, Euskal Autonomia Erkidegoak Giza Garapenaren Adierazleari dagokionez (GGI) 0,936ko puntuazioa lortu du, gehieneko puntuazioa 1 den eskala batean. Zifra horrek sailkapen unibertsalaren 18. tokian jartzen du gure Herriaren zati hori, EUSTATEk emaniko datuen arabera. Mundu mailan baliozkotutako adierazle horrek berdintasun- edo segurtasun-mailetatik gure hezkuntza-sistemaren kalitateraino haztatzen du. Aipatutako 0,936ko GGIk ziurtatzen du gure mende luzeko ekintza politiko eta instituzionala eraldatzailea eta eraginkorra izan dela.

Gainera, indarkeriaren eta terrorismoaren erabileraren aldeko apustua egiten zuten entitateek beren estrategia aldatu dute. Arauen, erakundearen eta balio demokratikoen esparruan elkarrikeria, bakea eta hitza erabiliz gure herriaren askatasunen alde lan egiteko bide gradualista eta pragmatikoa onartu dute, 50 urtetan 1.000 hildako baino gehiago eragin ondoren, aurrera egitea, eta kalte sozial, ekonomiko, kultural eta politiko sakona eragitea, alegia. Zuzenketa hori egiteak esan nahi du akats estrategiko izugarria aitortzea, eta erabat osatzeko beharko du oraindik egiteke dagoen kontakizuna egitea, eragindako mina aitortzearekin eta barkamena eskatzearekin batera.

Estatutua eta Hobekuntza onartu zirenetik, aurre egin diogu, etengabe, Estatuko botereek duten irrika zentralizatzaileari, egintzen bidetik itun politiko hau indargabetu nahi baitute. Nafarroako Foruaren Hobekuntzaren kasuan, 1982an ez zuen gure babesik izan, sektore abertzaleak baztertuz Estatuarekin negoziatua izan zelako eta Nafarroako herritarrek berretsi ez zutelako.

Era guztietako oztopoak gaindituz, herritarren babesa izan dugu Herri hau gidatzeko orduan, eta aurre egin diegu nazionalismo espainiarrak indarkeriarekin eta terrorismoarekin lotzeko eta gure izen ona zikintzeko egindako kanpainei. Eusko Legebiltzarrak, 2004ko abenduan, Euskal Herriarentzako Estatutu Politiko Berria onartu zuen, Ibarretxe Plana izenez ezagutzen dena (horren aurrekariak 'Erabakitze izan' txostenean jasota daude), baina, zoritxarrez, Madrilgo Diputatuen Kongresuak atzera bota zuen. Bestalde, Nafarroako Parlamentuan NFEBHLO erreformatzeko proposamen bat egiten dugu autogobernua garatzeko eta sakontzeko.

Orain arte azaldu dugun egungo egoera horretan, aberrigintzak bultzada estrategiko berri bat behar du, eta horrek behartzen gaitu ondorengo zeregin hauetara:

- a) Euskal herritarrekiko kontratu soziala berritzea, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzungo dien ongizate-gizarte berri bat eratzeke.
- b) Gure kultura-nortasuna aberastea eta indartzea, gizarte gero eta askotarikoago eta pluralago batean, bereziki konplexua den testuinguru kulturantzunean, eta, horretarako, Euskal Herriaren berezko nortasuna eta kultura transmititzeko bideak bermatzea. Euskara izango da prozesu honen osagai nagusia.
- c) Erakunde publikoen eta gizartearen arteko harremanetan sakontzea, demokratikoki sakontzeko mekanismo instituzionalizatuak ezarriz eta, horrela, euskal komunitate politikoa indartuz.

d) Estatuarekin estatu politiko berri bat hitzartzea Euskal Autonomia Erkidegoarentzat eta Nafarroako Foru Komunitatearentzat, euskal nazioa aitortuz eta Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidean oinarrituta, eta itun berri bat, Hobekuntza blindatzeko hura betetzea eragozten duten alde bakarreko erabakietatik babestuz. Estatuarekiko harremanetan Ekonomia Itunak eta Nafarroako Hitzarmenak duten alde bikotasun politikoa bermatuko duen akordioa.

Estatus berri bat, forutasunean oinarrituta, Euskadi osatzen duten Lurraldeei dagozkien eskubide historikoak eguneratzeko asmoan oinarrituta. Herritarrek demokratikoki adierazitako borondate politikoak legitimatutako ituna. Estatus berri bat, eskumen-esparrua blindatu, eragin den higadura irauli eta euskal autogobernuaren botere-funtsa zabalduko duena, euskal proiektu komuna osatzen duten pertsonen eskubide politiko, kultural, linguistiko, sozial eta ekonomikoak bermatzeko.

Era berean, Euskal Hirigune Elkargoa indartzearen alde lan egitea, erakunde horrentzako eskumen gehiago eta botere sozial eta ekonomiko handiagoa lortzeko. Akordio horrek hauteskunde-barruti propioa izateko aukera jasoko du, herritarren borondatea modu eraginkorrean adierazteko bidea emango duena.

3 EGUNGO EGOERA

3.1 Globalizazioaren ondorioak

Aro berri honi ekingo diogu globalizazio-prozesu betean sartuta gaudela, eta krisi globalak ere kudeatuko ditugu, gaur egungoa bezala. Aldaketa oso sakonak dira, eta, ondorioz, gure ekoizpen-sistema birmoldatzea eskatu digute, nazioartera zabaldu behar izan dugu eta aniztasun berri bat onartu eta integratu behar izan dugu. Gaur egun gure gizartea osatzen duten pertsonen jatorriak inoiz baino askotarikoagoak dira, eta gure lurraldeetan inoiz elkarrekin bizi izan den komunitaterik anitzena osatzen dute. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eta Adimen Artifizialaren bilakaerak eragindako iraultza, klima-aldaketaren erronka edo energia-hornitzaileen aldaketak eta garraio-ibilbideak dira, hein handi batean, eraldaketa horien kausa. Aldaketak inoiz ez bezalako abiaduran gertatzen ari dira. Eraldaketa garrantzitsuenen artean daude:

a) Geopolitika: eragile zahar eta berrien arteko lehia, baliabide naturalak eskuratzeko eta bakoitzak bere posizioei eusteko edo haietatik kanporatuak ez izateko, mehatxu bat da ezagutu dugun arauen eredu klasikoan oinarritutako nazioarteko harremanentzat. Fenomeno horrek eragin ditu, besteak beste, Errusiak Ukraina inbaditu izana edo Ekialde Hurbilean areagotu den ezegonkortasuna, fronte asko ireki baitira. Horien artean giza eskubideen urratze justifika ezina, hala nola Palestinako herriak Gazan sufritzen duena, kurduena, Sirian edo Libanon jasaten ari direna. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik eman ez diren pertsonen mugimendu erraldoiak ekarri ditu horrek.

b) Gobernantza globala: Korporazio pribatu jakin batzuek, batez ere telekomunikazioen, teknologia berrien eta finantzen esparrukoek, inguruan eragiteko gero eta ahalmen handiagoa dute, eta horrek sortu du nazioz gaindiko botere-egituren panorama berria. Aldaketa horrek sortutako antolamendu- eta erregulazio-hutsuneak eragina du birbanaketa-mekanismoetan, aukera-berdintasunean, klase ertainen dimentsioan eta posizionamenduan eta demokraziaren kalitatean. II. Mundu Gerraren ondoren duela ia 80 urte sortutako nazioarteko gobernantza-sistemak eguneratu egin behar dira, ezin baitiote errealitate horri erantzun. Nazioarteko erakundeak indartzea eta lankidetzaren mekanismoak hobetzea da jarraitu beharreko bidea.

c) Eskala: 8.000 milioi pertsona baino gehiago bizi dira munduan, eta horietatik 2.800 milioitik gora dira Indian edo Txinan. EBk 450 milioi biztanle ditu. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da nazioen arteko indarrak batzea eta eskala egokiak bilatzea, 'herrixka globalak' planteatzen dituen erronkei erantzuteko.

Banaka eta modu isolatuan jardunez, nazioek eta estatuek ez dute gaitasun eraginkorrik gure gizartearen erronka nagusi askori aurre egiteko. Euskadik bere lekua bilatu eta aurkitu behar du Europar Batasunean, eta erantzukizunak, eskubideak eta betebeharrak partekatu behar ditu, Europako erabaki-prozesuetan eta EBko politika publikoetan parte hartuz.

d) Zientzia, teknologia, ezagutza eta klima-aldaketa: industria tradizional askoren etorkizunari eragiten dio, eta jarduera, lanbide eta jakintza-arlo berriak sortzen laguntzen du. Gure ekoizpen-sistema sakonki eraldatzera behartzen gaitu. Era berean, gure jardueren ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-iraunkortasuna planetan bizitza bideragarria izateko eta bakean bizitzeko gakoa dela integratzea. Era berean, gure hezkuntza-sistema sakon berrikustera behartzen gaitu.

e) Agenda politiko berria: Agenda politikoa aurreikusi, aurreratu eta gizartean sortzen diren errealitateetara egokitu behar da, jokaleku berri bat ezarri eta politikak erantzun behar dien eskaera berriak planteatzen dituzten errealitateetara moldatu. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: gizartea aro digitalean sartzea, indarrean dagoen globalizazio-ereduak ekonomian, politikan eta gizartean duen eragina, krisi ekologikoa eta garapen iraunkorragoa behar izatea. Halaber, genero-berdintasunean, pertsonen duintasunarekiko errespetuan eta maila guztietan gero eta handiagoa den kultura- eta nortasun-aniztasunarekiko errespetuan aurrera egiteko eskakizun atzeraezina. Trantsizio demografikoari ekin behar diogu, bai eta digitalizazioak belaunaldien artean eta gizartean eragiten duen arrakalari ere. Gure herriko pertsonen ahalegin ekonomiko eta sozialaren eta eztabaida politikoaren zati handi bat gai horien ingurukoa da, eta haiei buruz dugun ikuspegi ideologikoak baldintzatzen du.

3.2 Demokrazia liberalaren krisia

Testuinguru honetan, krisian dauden demokrazia liberalek kontratu sozial berri bat birdefinitzeko erronka garrantzitsua dute aurrean. Sistema demokratikoez errendimendu-krisia bizi dute, mundu osoan gertatzen ari diren eraldaketa ekonomiko, politiko eta sozialen ondorioz. Nazioz gaundiko eragile pribatu berriak sortzen ari dira, herrialdeen bizitzan eragina dutenak, eta nazioarteko ordena bat, non herrialde garrantzitsuak eredu autokratiko eta totalitarioen alde egiten ari diren. Populismoaren gorakada da arestian deskribatu dugun krisiaren ondorio nagusia. Mugimendu horrek azpimarratzen du herritarrek politika hautemateko, interpretatzeko eta baloratzeko duten modua. Era berean, kezka handiz ikusten dugu Estatu askoren mapa politikoan gero eta presentzia handiagoa duten joera horiek Europako proiektu politikoaren sorrerako balioei aurre egiten hasi direla.

Kolektibitate-senaren aurrean, zeina egungo egoerara ekarri gaituen kontratu sozialaren oinarria baita, desberdintasun gero eta sakonagoek indibidualismoa eta ziurgabetasuna sustatzen dituzte. Horrela, komunitatearekin eta espazio politikoarekin dugun lotura, jasotako zerbitzuekin lotzen den pertzepzio indibidualista batetik artikulatzen da. Euskadiren eta Europar Batasunaren etorkizunak joera hori irauli eta demokrazia indartu behar dute. Lehentasunezko zeregina da hori. Sentimendu kolektiboa bultzatzea indibidualismoaren aurrean. Gaur egun, inoiz baino garrantzitsuagoa da euskal erakunde-sistema indartzea, gobernantza-sare kolaboratiboak ezartzea gizarte antolatuarekin, eta parte-hartze politiko indibidual eta kolektiborako mekanismo berriak ezartzea. Komunitate politikoa indartu egiten da herritarrek gai publikoetan duten inplikazioa sustatuz, kuantitatiboki eta kualitatiboki. Guztiok egin behar dugu ahalegina kultura demokratikoa gailendu dadin populismoaren eta ikuspegi totalitarioen aurrean, mundua irtenbiderik gabeko kalezulo batera eramaten baitute.

Ezagutza eta informazioa transmititzeko moduan eman diren aldaketen eraginez sakonki eraldatzen ari dira gizarteak errealitatea hautemateko duen modua. Gaur egun, biztanleriaren zati handi batek partzialki eta zatika jasotzen ditu gertakariei buruzko albisteak. Sare sozialen kasuan, algoritmoek eta horiek arautzen

dituzten mekanismoek eta edukien kalitateari buruzko kode etikorik ezak eztabaida publikoa polarizatzea ekarri dute. Gainera, bulo, sentsazionalismo eta hutsalkeria oinarritutako negozio-ereduak sortzen dituzte. Bestalde, hedabide tradizionalak, joera horretatik libre geratu beharrean, joera ideologiko nabarmenagoak erakusten dituzte, eta, batzuetan, interes ekonomikoak edo politikoak lehenesten dituzte informazio inpartzial eta zorrotzaren gainetik. Egoera horrek politikaren deslegitimazioa sustatzen du, elkarrizketa eta akordioak zailtzen ditu eta jarrera autoritarioak eta muturreko eskuindar eta ezkertiarak elikatzen ditu, konponbideak eskaini beharrean zaildu egiten baititu. Baliteke zatiketak eta gizartea polarizatzeak hauteskunde-etekinak ematea epe laburrean, baina dinamika horiek komunitatea atomizatzen dute, gobernaezin bihurtzen dute eta gizarte politiko eta demokratikoaren oinarriak suntsitzen dituzte. Jarrera horiek guztiak EAJ-PNVren jardura eta printzipio ideologikoen aurkakoak dira.

3.3 Eraldaketa politikoak Euskadin

Euskal gizartea ez dago agenda politikoari, eta, bereziki, aberrigintzari eragiten dioten estrategia horietatik kanpo. Gizarte indibidualistagoa eta polarizatuagoa gara, kontsumo-ohiturak eta bizitza publikoan parte hartzeko moduak beste gizarte aurreratu batzuen bide beretik daramatzana. Zuzenean eragiten digute sozializazio mekanismoetan eman diren aldaketa sakonek. Mekanismo horiek familiaren inguruan zeuden lehen. Bizitza politikoan eta gizartean parte hartzeari dagokionez, beherago eta ahulago daude gizarte konplexuetan. Zentzu horretan, eragile eta erakunde politiko eta sozialek dagozkien erantzukizunez jabetu behar dute, bai eta eta esku hartze arduratsua planteatu ere, egoera honi aurre egiteko.

Agenda politikoa aldatu egin da, gai globalek eraginda, hala nola zahartzeak eta krisi demografikoak, bereziki kezkarriak baitira Euskadin. Immigrazioak, klima-aldaketak eta digitalizazioak eragina dute herrien eta estatu-nazioen posizioan eta beren ahalmenetan. Era berean, eragina du guran gure erakundeek politikoki duten ahalmenari eta eragiteko eta egiteko duten gaitasunari buruzko egungo ziurgabetasunak. Erakundetze demokratikoaren fasea gaingiduta eta pertsona askoren bizitzan izan zituen hobekuntza nabarmenak alde batera utzita, behera egin du kolektibotasun-pertzepzioak, kapital soziala eta komunitate-sena murriztu egin dira. Ustelkeria kasuak, krispazio politikoak, deskalkifikazioa, iraina eta errespetu falta, zeinak politikan beren bidea egiten ari baitira, sare sozialetan zabalduz eta komunikabideak baldintzatuz, gizartearengandik urruntzea ekarri dute. Horregatik, gero eta pertsona gehiago sentitzen dira eragile politikoetatik eta, oro har, politikatik urrun. Kanpoko eta urruneko jotzen dira, eta haiekiko konexioak koiunturaren araberakoak dira. Hautesleen leialtasuna gero eta ahulagoa da.

Bestalde, sare sozialen egungo ereduak krisian jartzen ditu komunikabide tradizionalen zeregina eta haien sinesgarritasuna, elkarrizketa publikoaren kalitatea sinplifikatzen eta pobretzen du eta komunikazio politikoa eraldatu du. Egoera horrek zaildu egiten du epe luzerako pentsamendua eta akordio handiak lortzeko aukera. Egiturazko baldintza horiek, egoera ekonomiko eta politikoarekin batera, hausnarketa sakona egitera behartzen gaituzte. Gainera, sare sozialetan eta hedabide tradizional batzuetan desinformazioa eta albiste faltsuak ugaritzeak erakundeekiko polarizazioa eta mesfidantza areagotzen ditu. Lehentasuna da herritarren artean alfabetatze mediatikoa eta digitala sustatzea, informazio fidagarria ezagutu ahal izan dezaten, informazio hori jasotzeko kanala edozein dela ere. Gaitasun horiek indartzea funtsezkoa da demokrazia sendotzeko, pentsamendu kritikoa sustatzeko eta egungo komunikazio-panoraman dauden desinformazio-eta manipulazio-dinamikak indargabetzeko beharko den elkarrizketa eraikitzailea bultzatzeko.

Aurreko urteetako terrorismoa eta indarkeria gaingiditu ditugu (nahiz eta udalerrri batzuetan gure alderdikideek ahozko erasoak, larderia soziala, Batzokietan eginiko pintadak... jasaten ari diren). Haren alde egin zuten politikariek hausnarketa etiko eta publikoa egin behar dute beren ibilbideari buruz, eragindako min bidegabea aitortzeko. Era berean, gure bizikidetzan, gure garapen sozial eta ekonomikoan, gure asmo politikoetan eta gure demokraziaren kalitatean eragin zuten higadura onartu behar dute. Euskal gizarteak

ezin du terrorismoaren orrialdea pasatu gertakariak besterik gabe ahaztuz eta ez errepikatzeko oinarri etikoak jarriko dituen hausnarketa autokritikoa egin gabe. Gizarte gisa, aitortza zor diegu printzipio demokratikoetatik eta pluralismotik abiatuta, indarkeriaren, terrorismoaren eta gure iragan hurbilean gertatutako giza eskubideen urraketen biktimei, horiek eragin zituzten gertaeren bidegabekeria ahaztu gabe. EAJ-PNVk lanean jarraituko du bakearen balioak, gure nazio-elkarbizitza, gure garapen sozial eta ekonomikoa eta gure demokraziaren kalitatea bermatzen dituzten estrategiak eta politikak gure nazioan eta nazioartean babestu eta zabaltzeko.

1978ko erregimen konstituzionalak eta Espainiako gobernuen kudeaketak ez dute hainbat nazioz osatutako Estatuaren errealtatea ebatzi. Espainiako Estatuan, gure autogobernuaren higadura etengabea izan da, etengabeko birzentralizazio-prozesu bat bizi dugu, diktaduraren ondoren lortutako itunak eta adostasunak iraultzen ari dena, gure autogobernua, zuzenbide-estatu eta demokrazia bera ahulduz.

Pandemiaren ondorioz, gainera, Estatuak politikak euskal agenda bigarren mailara eraman zuen. Estatu mailako alderdiek euskal gaiak beren interesetarako baino ez dituzte erabiltzen, eta birzentralizazioa sustatzen ari dira. Akordio puntualak, oinarritzko legeria eta lege-dekretuak gorabehera, Konstituzio Auzitegiaren eta beste organo judizial batzuen epaiak gorabehera, autonomia-erkidegoen eskumen-corpusa nahita kontuan hartu gabe Estatuak Europako arauak aplikatzeak eta haien transposizioa gauzatzeak gure autogobernua ahultzen jarraitzen du. Joera hori gurekin zerikusirik ez duten hiru faktorek indartzen dute:

- a) Espekto politikoaren muturretatik datorren mehatxua, hala eskuin muturrekoena nola ezker muturrekoena, iritzi publikoa mobilizatzeko erabiltzen baitute.
- b) Estatuaren funtsezko erakundeak eta demokraziaren kalitatea hondatu izana, batez ere botere-banaketari eta botere judizialaren politizazioari dagokienez, bai eta etengabeko ustelkeria-kasuak ere.
- c) Gizartearen haserrearen kudeaketa kalkulatu egin da, non Espainiako Gobernuaren agenda eskumen-gatazkak ezkututzen saiatzera eta benetako aniztasun nazionala behetan aitortzeari buruzko eztabaida atzeratzen laguntzen duten gizarte-neurrietara bideratuta dagoen.

Mundu globalizatu eta gero eta indibidualistagoan mekanismo gisa erabiltzen den mezua da garrantzitsuena neurriak direla, ez nork hartzen dituen. Horrela, argi eta garbi inbaditzen ari dira euskal eskumen-eremuak. Gure autogobernu ahalmena murrizten ari da. Konpondu nahi ziren arazoak ez dira konpontzen ari, eta etorkizuneko eskumen-higadurak ahalbidetzen dituzten estatu-legeek babestea ekarriko duten aurrekariak sortzen ari dira.

3.4 Eraldaketa sozialak Euskadin

Euskadin, beste herrialde aurreratu batzuetan bezala, ongizate-estatuaren krisi bati aurre egin behar diogu, bereziki sistema soziosanitarioan, segurtasunean, demografian eta hezkuntzan, biztanleriaren zahartzea arazo handi bihurtu den garai honetan. Egituren baitan eman diren gorabehera horiei gehitu zaizkie 2008ko finantza-krisia, Covid-19aren pandemia, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkak eta Txinak eta AEBk industriaren eta enpleguaren eremuan eragin duten inpaktua.

Ahalegin handia egin da egoera horri aurre egiteko, baina konponbide bat emateak eskatzen du eguneroko akatsak zuzentzetik harago joatea. Kontratu soziala birdefinitu behar dugu, ongizate-estatu eta haren prestazioak birdiseinatu, hura finantzatzeko duen produkzio-sistema modernizatu eta krisi demografikoari eta belaunaldien arteko justiziariko irmo heldu. Genero-berdintasuna eta sexu-askatasuna zeharkako eta lehiakortasuneko faktore bihurtu behar dira, eta iraunkortasuna, berriz, Garapen Iraunkorraren printzipioetan oinarritutako garapen-paradigma berri baterako gida.

Azken batean, gure aurrekoek gainditu zuten antzeko erronka bati egin behar diogu aurre. Sorreratik dugun ideari koherentziaz erantzun behar diogu: "Izan ginelako, gara; garelako, izango gara". Egoera honetan, berrikuntza- eta gainditze-espíritu bera aplikatu behar dugu, EAJ-PNV sortu zutenek, erbestealdiari aurre egin ziotenek edo diktaduraren ondoren hartu genuen Herriak bizi izan dituen krisien aurka borrokatu zirenek zuten erabaki eta gogo bera. 130 urteko ibilbidearen ondoren, gure balioak eta printzipioak bere horretan gordetzen ditugu; gure betiko aberrigintza-nahiari eusten diogu, Herria bera eta herrigintzarako tresnak hobetuz.

4 HELBURU POLITIKOAK

Euzko Alderdi Jeltzaleak, EAJ-PNVk, proposamen horiek planteatzen ditu, desiragarriak eta posibleak direla sinetsita. Sinetsita dago gure ordezkariak gai direla adimen, ezagutza, jakinduria eta sen onez praktikan jartzeko. Gure alderdikideek errealitate bihurtzeko lan egiteko konpromisoa hartzen dute. Horretarako, ondorengoak beharko ditugu:

- a) Munduak bizi dituen korrante handi eta biziak planteatzen dituzten erronkak argi eta garbi ezagutzea eta hautematea, erreakzionatzea eta onartzea. Nazio gisa gure etorkizuna eratzen ari direnak dira horiek. Lidergo politikoa gauzatu behar dugu, Herri eta Nazio gisa aurrera egin dezagun, gizarte osoarengan ilusioa piztuz eta hura mugiaraziz eta konprometituz.
- b) Apaltasunez, ulermenez, arretaz eta modu aktiboan entzutea gizarteak eskatzen duena, bere itxaropenak ezagutzeko, errealitatea onartzeko, gure mugak ezagutzeko eta beharrezkoa dena posible egiteko.
- c) Euskal gizartearen interes orokorrak defendatuko dituzten eta bere arazoak konpontzen eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten helburu eta estrategietan oinarritutako lidergo politikoa gauzatzea.

Proaktibitate handiagoa izatea politika gaietan eta arlo sektorialetan ditugun jarrerak azaltzerakoan.

4.1 Euskadin demokrazia indartzea

Euskal gizarteak gero eta pluralagoa eta konplexuagoa da, hala dira sentitzeko, pentsatzeko eta jarduteko moduak. Gizarteak konfiantza du demokrazian, eta haren printzipio eta mekanismoetan gatazkak modu baketsuan konpontzeko, gaur egun indartu egin behar den zerbait. Erakunde publikoetan konfiantza du ordezkartza politikoa izateko, baina gizarte-, kultura- edo kirol-arloko mugimendu-, elkarte- eta erakunde-sare zabal eta askotarikoaren bidez ere adierazten da. Gure herriaren kapital soziala aberasten duten eta espazio publikoa indartzen duten kolektiboak dira, nahiz eta batzuetan oso politizatuta dauden eta beren ekintzak erakundeekin aurrez aurre jartzera bideratzen dituzten. Hala ere, gizartearen eta bere sareen bizitasuna etorkizuna eraldatzeko eta eraikitzeke duen gaitasunaren adierazgarri da. Euskadik gizarte zibil indartsu eta aktiboa behar du, trebatua eta informatua, balio demokratikoekin konprometitua eta populismoaren eta estremismoaren tentazioei aurre egiteko gai izango dena.

- a) Gure eredua da elkarlanetik eraikitzea, ez konfrontaziotik. Gure konpromisoa da Euskadirentzat funtsezkoak diren gaietan adostasun zabalei bide ematea eta horiek bilbatzea. EAJ-PNVk herritarrekiko lankidetzaz zuzenaren bidea estutu eta indartuko du, euskal administrazio publikoen, herritarren eta gizarte antolatuaren arteko gobernantza kolaboratiboko prozesuen bidez. Hori lortzeko, demokrazia eta sistema politikoa biziberritu behar ditugu, eta agenda propioa garatu. Populismotik eta demokrazia ahultzen duen edozein prozesutatik aldentu. Politika biziberritzeak komunitate politikoa eta, aldi berean, herritarrak bultzatzen eta babesten dituen sare komunitarioa indartzen ditu. Gure energia osoa jarriko dugu

demokrazian sakontzeko eta kultura demokratikoa defendatzeko eta hedatzeko konpromisoan. Horretarako, herritarren partaidetzarako eta entzute aktiborako metodologia tradizionalak ez ezik, tresna digital eta berritzaileak ere erabiliko ditugu, gizarte-talde guztiak kultura eta belaunaldi anitzetan integratzea ahalbidetuko dutenak.

b) Ezin da lideratu pertsonei entzun gabe, haien ezagutzari balioa eman gabe eta barne-arazoetan eta gai publikoetan parte hartzeko nahia katalizatu gabe. Entzute aktiboa apaltasunetik eta aitortzatik baino ezin izango da aurrera eraman, proposamen eraldatzaileak identifikatzea ahalbidetzen duten jarreretatik. Horixe da ezberdinen arteko elkarriketa eta akordioa indartzeko kanpamentu nagusirik onena, proiektu komun batean borondatez eta konbentzituta parte hartzea ahalbidetzeko tresna gisa. Baldintzarik gabeko eta ñabardurarik gabeko atxikimendua baino kontzeptu emankorragoa, "batasuna" deitzen dutena. Horretarako, gure proposamenak herritarrengana hurbiltzeko, online eta off line metodoak bateratu behar ditugu, haien parte-hartzea eta proiektu komun batean konfiantza sustatuz.

c) Hain boladan dagoen itxurazko polarizazioa baztertu behar dugu. Adostasunak sortzea eta elkarguneak sustatzea gure helburuetako bat bada, posizio hori zuzenean bateraezina da polarizazioarekin. Populismoek liskarra sustatzen dute, eta errealtate alternatiboak eraikitzen dituzte, sinesmenek eta metahizkuntzek blindaturiko komunitateak sortzen dituztenak, oposizio bidez definitzeko joera dutenak. Tamaina nahikoa badute, botere instituzionala eskuratzeko aukera ematen dute, baina demokraziarekin eta askatasunekin amaitzearen truke. Hori ez da izan, ez da, eta ez da izango EAJ-PNV bezalako erakunde baten aukera. Bateraezina da gure sustrai humanistarekin eta oinarrizko eskubideekiko dugun konpromisoarekin. Sozialki kohesionatua, ekonomikoki oparoa eta kulturalki irekia den komunitatea eraikitzea eragozten du, guztion ongiaren definizioarekin bat datorrena. Populismo horiek saihesteko, gardentasuna funtsezkoa da, horrekin erabat konprometituta baikaude; izan ere, informazioa garaiz eta behar bezala eskuratzeko ziurtatzen du, herritarren parte-hartzea errazten du, kontuak ematea eta erakunde publikoetan konfiantza izatea sustatzen du eta herritarrengandik gertu egongo den gobernu arduratsua bermatzen du. Hala ere, itxurazko polarizazioari uko egiteak ez du esan nahi norberaren posizioen defentsari uko egin behar zaionik. Jarrerak aurrez aurre jartzea da edozein sistema demokratikoren oinarria, eta adostasun eta ulermen giroa bilatzea ezin da aitzakia izan proiektu politikoak kontrastatzeari uko egiteko.

Azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan edo Iparraldean, Frantzian eta Espainian nahiz Europar Batasunean bertan, demokraziaren aurkako mehatxu horiei aurre egiteko ahalegin guztiekin bat egin behar dugu. Esparru horietan guztietan, muturreko indar politikoak, gero eta babes handiagoarekin, demokraziaren kalitatea higatzen eta gure gizartearen funtsezko balioak zalantzan jartzen ari dira.

4.2 Euskadiren nazio aitortza

Nazioarteko zuzenbideak aitortzen du ez dagoela ezberdintasunik Herri bakoitzak dituen eskubideei dagokionez. Euskal nazio-nortasuna bada, bai eta hura babesten eta azaltzen duen Herri bat ere, aski ezaguna. Baita errealtate instituzional bat ere, "demos" horren existentziari erantzuten diona. Errealtate ezberdinak diren arren, Gernikako Autonomia Estatutua, Nafarroako Hobekuntza edo Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoa errealtate horren adierazgarri dira. Hiru errealtate politiko-administratiboak abiapuntutzat hartuta, osa daitezkeen gehiengoaren borondate kolektiboak errespetatuz, eta kontuan hartuta barrendegien kasua eta, bereziki, Trebiñu eta Villaverde de Turtziozen kasua, Euskadiren erabakitze eskubidea instituzionalizatzeko helburuari eusten diogu. Bi estaturen arteko itun berri baten bidez egin nahi dugu, Europako ordenamenduan txertatu eta Espainiako eta Frantziako estatuekiko alde bikotasunaren bidez bermatu.

Azken batean, helburu hori lortzeak bi Estatuetan erabakitzeko eskubidea aitortzeko eta eskubide hori baliatzea hitzartzeko dagoen borondate politikoa aldatzera behartzen du. Izan ere, gure asmoek talka egiten dute birzentralizazio-prozesu argi batekin, eta horrek arriskuan jartzen ditu adostasun politikoak, eta eraso egiten die orain arte lortutako autogobernu-mailei. Ez da onargarria Euskadiren errealitatea ukatzea subjektu politiko gisa. Ezta joko politiko demokratikoaren arauak Estatuko erakunde zentralak beren kabuz urratu edo berrinterpretatzea ere. Estatua plurinazionala da, eta Europako legeek esparruak eta kultura politikoak onartu egin behar dute hori. Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoa garatzen jarraitzeko lana egin behar dugu, eskumen administratibo berriak eskuratuz, batez ere arlo ekonomikoan, lurralde kolektibitatearen estatutu berri batera eramanez eta, ondoren, erabateko autonomiara.

EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du akordio bat bultzatzeko, Espainiako eta Frantziako estatuak eta Erkidegoko erakundeak beren lege- eta erakunde-esparruak eta kultura politikoak egungo errealitate plurinazionalera egokitzeko. Horrela baino ez du adieraziko "Aniztasunean bat eginda" goiburuak European benetan existitzen den aniztasun nazional guztia, herritarren borondatearen bermearekin. Beharrezkoa da gizarte zibila demokraziaren defentsa horretan eta Euskadiren onarpen nazionalaren prozesuan inplikatzeko ahalegina egitea.

4.3 Euskadi European indartzea, autogobernuaren eta burujabetasunaren dimentsio nagusia

Europar Batasunaren sorrera eta funtsa bere kideen atxikimendu askea da, desberdinen arteko bizikidetzarako, elkarrekiko errespetuan eta aitopenean oinarritutako bake-tresna gisa sortu zena. Hori eraikitzeko, aniztasun nazionala eta haren adierazpen instituzionalak, politikoak eta kulturalak aitortu eta errespetatzen dira. Europaren nortasun eta subiranotasun berri bat eraikitzeak integrazio-ahalegina egitera eta inplikaturako nazioen eta estatuen autodeterminazio-eskubidearen adierazpen garbiak diren erabakiak hartzera behartzen du. Akordiotik sortu eta herriaren berrespenaren bidez legitimatzen den ariketa da hori. Horregatik, lehentasunezko helburua da gure erakundeak Europako esparruan egotea eta haien zeregina eta eskumenak aitortzea. Itunak, Hitzarmenak eta EAJ-PNVk bultzatutako Europako Argitasun Hitzarmenak, besteak beste, konponbide berritzaileak ekar diezazkiekete Batasunaren arazo handi batzuei, hala nola Europako Ogasun komuna sortzeko edo herritarrengandik hurbilago dagoen gobernantza bat praktikatzeko. Funtzionatuko duen Europar Batasuna behar dugu. Horren barruan, gure espazioa eta mekanismoak bilatuko ditugu, gure nortasunari eusteko eta ekarpenak egiteko, gure herritarren eskubideak bermatzeko, borondatez subiranotasuna partekatze eta eragiten diguten erabakietan erabakitzeko gaitasun eta nortasun propioarekin parte hartzeko. Horretarako, barruti propioa izatea funtsezko elementua izango da. Hitza eta botoa ere ezinbestekoak dituzten eskualdeen zeregina indartzea, deszentralizazioa EBrentzat sendotasuna dela erakusteko.

4.4 Euskal nortasuna sendotzea testuinguru askotariko, konplexu eta anitz batean

Euskal nortasuna inoiz baino irekiagoa eta pluralagoa da. Euskaldun asko beste herrialde batzuetatik datoz, beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzte, hainbat identitate kolektibo partekatzen dituzte. Nazioaren kontzeptu klasikoek mundu globaleko gizartearen berezko aniztasun hori onartu behar dute, gure inguruko gainerako nazioetan gertatzen den bezala. Aniztasun hori jasotzen eta integratzen jarraitu behar dugula onartu behar dugu. Euskadik harrera-, integrazio- eta lankidetzako herri izan behar du. Horretarako, dagozkion tresna politiko eta ekonomikoak behar ditugu, bai eta bizikidetzako eta kulturartekotasuneko gizarte-

mugimenduen garapena ere. Euskal herri eta nazio gisa bizirik irauteko, ezinbestekoa da migratzaileak integratzea eta haien gizarte- eta harrera-premiei behar bezala erantzutea.

Aniztasun hori onartzeak ez du esan nahi gure sustraiak ahaztea, ezta sustraiei uko egitea ere. Horregatik, gure altxorra prestigiatzera eta kontserbatzera eramango duen prozesua bultzatu behar dugu, eta kohesio-tresna gisa proposatu. Konpromiso horren lehen lerroan agertzen da gure nortasunaren gakoetako bat, euskara. Argi dago euskara dakiten biztanleen artean desoreka dagoela gaztelaniarekin edo frantsesarekin alderatuta. Horregatik, euskararen ezagutza unibertsalizatzeko bidean aurrera egin behar da, tarte hori murrizteko. Euskararen erabilera soziala biziberritzea eta indartzea eta gure hizkuntza integrazio-bide bihurtzea ezinbestekoa da kultura-ondarea gordetzeko, gure ezaugarri nagusietako bat baita eta Europako aniztasunaren parte baita. Euskara guztiona da. Euskararen biziberritzeak adostasuna, euskal nortasuna errespetatzea eta erakunde publikoen eta gizartearen artean partekatutako politikak errespetatzea eskatzen du, Euskadin bizi garen guztion ondare bihurtzeko eta aro digitalean eta espresuki ikus-entzunezko edukien plataformetan txertatzeko. Izan ere, integrazio-hizkuntza izateaz gain, euskara menderatzen dutenen artean erabiltzea da euskararen erronketako bat. Horretarako, funtsezkoa da gazteak inplikatzeko haien erabileran, bai testuinguru formalean, bai aisialdian.

Arreta berezia merezi du euskarak Iparraldean duen egoerak, ahalegin berezia eta asmo handikoa eskatzen baitu lurralde honetan.

Ondare horretan, gainera, orain arte babestu ditugun tradizioak sartu behar ditugu, beraietatik sortu baitira gure gizarte egituratzen duten erakundeak, gure gizarte-egituretan ezinbesteko ditugunak gizarte osoari zerbitzua emanez. Baita bizi garen esparru soziopolitikoak eta gure ongizatearen oinarri den errealtate ekonomikoa ere, hori ere gure Herriaren kultura-adierazpen bereizgarria baita. Nortasun-ezaugarri horren inguruan, gizarte-ekonomiak, erantzukizun sozial korporatiboak, ezagutzaren kudeaketa egokiak, ekintzailetzaren prestigioak, ahaleginak, ondo egindako lanak edo enpresa inklusiboari buruzko aho bateko akordio politikoak ekosistema egokia sortzen dute garapen soziala duen garapen ekonomikoaren eredurako. Herrialde gisa dugun fidagarritasunaren oinarriak dira. Ezaugarri horiek ezagun egiten gaituzte, "Basque Country" marka erakargarri egiten dute eta kanpoan prestigioa ematen digute. Dimentsio horiek guztiak gure nazioaren eta nortasunaren kontzeptuetan txertatuko ditugu.

4.5 Euskal gizartearekin kontratu sozial berri bat adostea, gizarte ongizatearen oreka berrezartzeko

Izaki sozialak gara. Pertsonok ingurune bat behar dugu, gizarte bat, gure potentziala garatu, komunikatu eta komunean jartzeko. Gizarte-politiken katalogo zabal bat kudeatzeak prestazioen eta zerbitzuen karta bat eskaintzea baino askoz gehiago eskatzen du. Arima, gizatasuna, enpatia eta erantzukizuna eman behar zaizkio. Horrela, esparru abegikor, afektibo eta ulerkor bat eraikiko da, non eskubideak eta betebeharrak argi eta konpromiso berarekin uztartuko ditugun. Tolerantziaren totemaren ordeaz, toleratzen dutenen eta toleratuak direnen arteko ezberdintasuna baitakar, aniztasunaren printzipioa ezarri, aniztasuna erabat onartuz.

Politika publikoak kudeatu beharrak eta horrek dakarren erantzukizun instituzionalak behartu gaitu, maizegi, atzeraezinak diren erronkei modu errektiboan erantzutera, eta plangintza eta estrategia zigortu ditu, kudeaketa publikoaren dimentsio humanistari eraginez. Proiektu totalitarioak polarizatzeko eta bultzatzeko agenda politiko berria inposatzen saiatzen direnen aurrean, EAJ-PNVk humanismoaren alde egiten jarraituko du, pertsonak ekintza politikoaren erdigunean jartzearen alde.

5 NAZIO NORTASUNEAN ETA AUTOGOBERNUAN EAJ-PNV-K GAUZATZEN DUEN ESTRATEGIAREN PRINTZPIOAK

Testuinguru horretan, EAJ-PNVk egiten du indartu egingo gaituen, nazio, herri eta gizarte gehiago egingo gaituen politikaren aldeko hautua. Esparru politiko zehatz bat defendatzen dugu, Europar Batasunarena, euskal subiranotasuna mundu globalean jarduteko gai den egitura batekin bat egitea ahalbidetuko diguna. Europar Batasun zabaldia, aniztasunaren errespetuan eta aitortopenean oinarritua, bai eta bere kideen atxikimendu askean, elkartasunean, subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioetan eta balio demokratikoekiko konpromisoan ere, lekurik onena izango da euskal herritarrek beren gaitasunak, eskumenak, erakundeak eta nazio-nortasuna proiektu honetara batu eta ekar ditzaten.

Gero eta mundu handiago eta interkonektatuago batean, ehunka milioi pertsona biltzen dituzten merkatu eta esparru politikoekin, inoiz baino beharrezkoago ditugu giza eskalako eremuak. Komunitate fidagarri eta kohesionatu batekin lotzen gaituen nazio nortasun honek berotasuna eta babesa eskaintzen ditu. Kudeaketa hurbila, adeitsua, eta hizkuntza bera hitz egiten duten, kale beretatik dabilzan eta herritar gehien-gehienek dituzten arazo berberak dituzten agintariak funtsezkoak dira pertsonen eta erakundeen arteko beharrezko loturari eusteko.

Euskal nazioari zentzua eman zion, ematen dion eta emango dion printzipioaren aldeko borondateak batzen jarraitzeko erronka dugu: euskal herritarrak garela eta euskaldun izaten jarraitu nahi dugula sinetsita dagoen gizarte, eta mundu globalean identitate hori ikusaraztea, Europako esparru atlantikoko kide garela azpimarratuz. Aintzatespena eta errespetua lortu nahi ditugu, eta integrazio-prozesu bat bultzatuko dugu, gure atxikimendu aske, kontziente eta koherentean oinarritua, edozein erakunde subiranori dagokion eskalarekin esparru globalean jarduteko aukera emango diguten egituretan. Europako proiektu bateratuari ekarpena egin nahi diogu, bai EBko erakundeetan zuzenean parte hartuz, bai Estatuak Bruselan defendatuko duen jarreran eraginez. Hori da gure lehentasuna, eta lan horri helduko diogu bakarrik zein hainbat sare eta foro transnazionalen bidez.

Hori lortzeko dugun estrategia printzipio hauetan oinarritzen da:

- a) Negoziaketa eta ituna. Nazio gisa aitortzea eta Euskadiren erabakitze eskubidea instituzionalizatzea, Euskadiren eta Estatuaren artean prozedura itundu eta negoziatu baten bidez eta betorik ezarri gabe. Aldebikotasun eraginkorra bermatuko duen sistema bat, inoiz uko egin ez diegun eskubide historikoetan oinarritua eta akordio hau aldebakartasunaren eta tentazio zentralizatzaileen aurrean blindatuko duena.
- b) Gure nazioa Europar Batasunean integratzea. Gure errealitate nazionala aitortuko duten protokoloak sartzea eta bere tratatuen erreforma bultzatzea, hurbiltasunaren aldeko ekarpenen eta Europaren Etorkizunerako Konferentzian (COFOE) zehaztu zen estatuz azpiko egituren aitortpenaren argitan.
- c) Gobernantza moderno eta kolaboratiboa. Entzute aktiboan, gardentasunean eta parte-hartzean oinarritutako balio humanistetan sustraiak dituen gobernantza-eredua. Ezagutza soziala atzemateko, mobilizatzeko eta eraginkor egiteko, eta gure bizikidetzak hobetzeko partaidetza eta tresna bihurtzeko gai dena.
- d) Euskal gizartearen etorkizuneko ikuspegiarekin egituratzen jarraituko duen ekintza politiko pragmatiko eta solidarioa. Gizarte-kohesioa indartuz eta herritar guztien ongizatea sustatuko duten politika errealistak eta lankidetzakoak ezarriz, epe luzerako garapen iraunkorra eta bidezkoa ziurtatuz.
- e) Identitate demokratiko, moderno, ireki eta europazalea definitzea, gure berezitasun kultural, sozial eta ekonomikoak eta komunitate politiko nazional gisa dugun fidagarritasuna barne hartuko dituen.

f) Autogobernuaren kontakizun humanista eta soziala, pluraltasunean, errespetuan, aniztasunaren aitortzan, giza garapen iraunkorrean eta Giza Eskubideen bermean oinarritua.

Hori dena egin nahi dugu Batasunaren baitan, hura identifikatzen eta zentzua ematen duten erakundeen bitartez:

Batasunaren baitan egin nahi dugu, hura identifikatzen eta zentzua ematen dioten erakundeen eta instituzioen bidez, bizirik nahi dugun eta bultzatu nahi dugun hizkuntza propioaren bidez, Europako aniztasuna aberasten duen gure kulturaren bidez, eta eredu soziala duen garapen ekonomikoko eredu baten bidez. Komunitate zibiko sendo, eraginkor, fidagarri, zuzen eta bideragarri baten ezaugarriak dira, gure gaitasunen adierazpena.

6 PROPOSAMENAK ETA JARDUERAK

Entzute aktiboaren eta laguntzaren printzipioaren arabera, proposamen horiek gure eskaintza politikoa indartzeko duten ahalmena areagotzeko lanak ondorengo hauek egitera behartzen gaitu:

a) Txosten honen edukien inguruan herritarren ekarpenak jasotzea, kontrastatzea eta partekatzea. EAJ-PNVren Aberri Batzarreko kideek, EBBk, Alderdiaren gainerako barne erakunde guztiekin, kargu publikoekin eta alderdikideekin batera, bakoitzak bere eremutik, proposamen eta ekintza egokiak bultzatuko dituzte eta onartutako txostenetan jasotakoaren arabera jardungo dute.

b) Entzuteko prozesuaren laburpen-dokumentu bat egitea eta prozesu horren emaitzak zabaltzea. EAJ-PNVk etengabeko harremana izan behar du euskal gizartearekin, eta, entzute aktiboaren printzipioaren arabera, bere iritzia partekatu, kontrastatu, neurtu, bildu eta kontuan hartuko du, egin nahi dituen proiektu, plan edo ekimen politikoak aberasteko eta indartzeko.

Ekintzak sei arlo handitan egitea proposatzen dugu:

6.1 Burujabetza

I. Berrikuntza politikoaren ikuspegitik gaur egun subiranotasuna zer den eta zer esan nahi duen zehaztea. Espainia eta Frantziako estatuen aurrean estatus politiko berri bat lortzea bultzatzea, Euskadi - Euskal Herria subjektu juridiko politiko gisa eta euskal herritarrek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeke duten eskubidea modu eraginkorrean aitortzeko. Gaur egun Euskal Herria osatzen duten hiru errealitate politiko-administratiboetatik abiatuta eta bakoitzaren borondate kolektiboak errespetatuz.

II. Dagoeneko azaldu dugun Europar integrazio horren baitan, Euskal Herriari dagozkion eskubide historikoen arabera subiranotasuna aitortu eta erabat gauzatzeko prozedurak ezartzea.

III. Jarrera hori abiapuntutzat hartuz, Europaren subiranotasuna sendotzeko eta gure Batasunaren pixkanakako federalizazioari dagokionez, Europar Batasuneko organo eta erakundeetan Euskadiren ahots propioarekin parte hartzea.

IV. Euskal eskubide historikoen eta zuzenbide zibilaren potentziala garatzea Euskadi osatzen duten lurraldeetan, gure autogobernua eguneratzeko eta sakontzeko eta Europako egoera ekonomiko eta sozial berrietara egokitzeko.

6.2 Nortasuna

Euskal kultura- eta nazio-nortasuna indartzea, gure hizkuntza-ondarea oinarri hartuta, gure hizkuntzaren normalizazioa eta erabilera indartuz gizartearen esparru guztietan, bai eta gure kultura-ondarea eta eskubide historikoak oinarri hartuta ere.

I. Gure herriaren nortasuna indartzea, enpresei eta ekintzaileen lanari aintzatespena eta bultzada emanez, gure produkzio-sistemaren eraginkortasunean funtsezko balio ekonomiko eta sozial gisa. Gizarte-erantzukizun korporatiboaren, ekintzailetzaren prestigioaren, ahaleginaren kulturaren, ondo egindako lanaren, gure herrialdearen ahalmenaren eta gizarte-babeseko sistemak eskaintzen duen aukera-berdintasunerako bermearen alde egitea. Nazioartekotzeari esker, gure enpresak gure enbaxadorerik onenetakoa bihurtu dira, eta haiekin batera gure herrialdearen izena gure mugetatik haratago eraman dute. Harro baino harroago egoteko arrazoiak ematen dizkugun nortasuna.

II. Giza eskubideekin dugun konpromiso negoziatzina gure nortasun-ezaugarrietako bat bihurtzea. Izen on hori baliatuta, gure nazio-nortasunaren marka indartzea.

III. Gure gizartearen ezaugarri den aniztasuna onartzea eta integratzea, eta dauden adostasunak balioestea eta indartzea, gure nazio-nortasuna integratzeko eta indartzeko bide gisa. Pixkanaka gure gizartean integratzen ari diren pertsonen euskal nortasunaren funtsezko printzipioak ordezkatzeko dituzten balio, kultura eta printzipioekiko atxikimenduaren alde lan egitea.

IV. Gure berezitasun instituzionalak, linguistikoak, kirolekoak eta kulturalak garatzea eta Europar Batasunean proiektatzea. Eredu digitalean euskararen ekoizpena eta hedapena bizkortzea. Gure hizkuntzaren ofizialtasuna aldarrikatzea Espainiako eta Frantziako estatuetan eta Europa mailan.

V. Arlo guztietan aliantza publiko-pribatuak sustatzea, nortasunari eta subiranotasunari buruzko gure ikuspegia eta misioa zabaldu eta eraginkor bihurtzeko.

VI. "Basque Country" herrialde-markaren arloan politika nazional propioak bultzatu, garatu eta aplikatzea, eleaniztasunaren bidez, euskara lehenetsiz eta aniztasuna aitortuz, kulturartekotasun-politikekin, kulturarekin zentzu zabalean eta kiroleko diplomaziarekin. Euskal selekzio nazionalen ofizialtasuna bultzatzen jarraitzea, nazioartean dugun nortasun bereziaren adierazle argi gisa.

VII. Hiru administrazio-eremutan (EAE, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Hirigune Elkargoa) banatuta dauden euskararen lurraldeen arteko harremanak sendotzea, sektore-eremu guztietan. Erakunde guztietan aintzatespen bateratua bultzatuz. Bereziki lan egitea, bakoitzari egokitutako planekin, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, norberaren identitate-kontakizunean eta erakunde unitarioetara egiten duen eboluzio progresiboan, Hitzarmen-Hobekuntza eta udal, eskualde eta eskualde mailako erakundeak bezalako errealitate espezifikoetan oinarrituta.

VIII. Diasporarekiko harremanak sendotzea. Diplomaziarako eta harreman instituzionaletarako aukera sustatzea, euskaldunek munduan dituzten sendotasun eta harremanetan oinarrituta. Euskal nortasunaren eta hizkuntzaren hedapenean duen zeregina indartzea, baita Euskadiren nazio eraikuntzan duen parte-hartzea ere, diasporak XXI. mendean hartzen dituen adierazpen berriak kontuan hartuta, bereziki digitalizazioaren eta mugikortasun handiaren ondorioz.

IX. "Giza garapen iraunkorraren euskal eredua" esparru akademikoan aztertzea, hura aintzatestea eta zabaltzea bultzatuz, garapen sozialarekin bat eginda dagoen euskal garapen ekonomikoa aldarrikatzeko, hobetzeko eta zabaltzeko.

6.3 Herrigintza eta elkarlana

I. Herrigintza onaren printzipioa onartzea, gure erakundeen ezaugarri bereizgarri gisa, Europar Batasunak ezarritako estandarren ildotik. Gardentasuna eta kontuak ematea gure erakundeen nortasun- eta nolakotasun-ikur bihurtzea. Parte-hartzea eta lankidetzak eskaintzea, entzute aktiboaren eta herritarrek gai publikoetan duten inplikazioaren zerbitzura dagoen tresna gisa.

II. Ekintza instituzionalei buruzko komunikazio-estrategia berritzailea hedatzea, herritarrek jasotzen duten informazioaren kalitatea hobetzeko.

III. Gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzak izan behar dira **gizartearekin dugun harremanaren funtsa (EAJ-PNV)**, betiere entzute aktibotik abiatuta.

IV. Gure erakunde publikoen eta EAJ-PNVren bizkortasuna, hurbiltasuna eta eraginkortasuna sustatzea, gure gizartea bizikidetzaren eta garapen pertsonalaren eremu gisa aitortzea bultzatuz.

V. BUOKRAZIARI buruzko hausnarketa sakona egitea eta sektore publikoaren antolaketa eraldatzea, haren eraginkortasuna eta efizientzia optimizatzeko, burokrazia administratiboa murriztuz. Kalitatezko zerbitzu publikoaren konpromisoa indartzea eta komunitatea arlo publikotik ehuntzea, hura humanizatzeko eta eraginkortasun-estandarrak hobetzeko.

VI. I+G+B kontzeptua ekintza publikoan sartzeko. Euskal erakunde publikoen sarean epe ertain eta luzeko plangintza estrategikorako gaitasunak garatzea herrialdearen lehentasunetan, partaidetza, koordinazio eta lurralde-oreka egokiarekin, bai eta herritarren legimititatearekin ere. Gizarteak ekintza publiko gizatiarragoa eta hurbilagoa behar du. Digitalizazioak horretan lagundu behar du, eta ez da oztupo eta deshumanizatzeko tresna bihurtu behar, eta gai hori berrikusi eta, hala badagokio, zuzendu egin behar da.

VII. Euskal gizarteak gai publikoetan politikan parte har dezan laguntzeko mekanismo teknikoak eta tresna digitalak garatzea, herri-kontsultarako dinamikak eta erreferendumak barne, arreta berezia jarrita gazteen eta ordezkaturako taldeen parte-hartzeari.

VIII. Itunak eta Hitzarmenak gure gobernantza-proposamenen ardatz gisa dituzten bertuteak (akordioa eta aldebikotasuna) erabat garatzearen eta hedatzearen alde egitea. Horiek nazioan, estatuan eta, bereziki, nazioartean zabaltzeko lanari eustea. Federalismo fiskalaren adibide gisa bultzatzea, etorkizuneko Europako Ogasuna bultzatzeko. Zabalkunde eta sentsibilizazio hori funtsezkoa da gure erakundean eta alderdikideen artean ere egitea. Era berean, euskal gizarteari azaltzea zein garrantzitsua eta beharrezkoa den euskal autogobernua eguneratzea eta sakontzea, XXI. mendeko Euskadiren erronkei erantzun egokia eman ahal izateko.

IX. Udal-zuzenbide eta foru-zuzenbide zibil propio baten garapena bultzatzea, parte hartzeko eta zuzenean kontsultatzeko mekanismoak eta toki-eskumeneko gaiei buruzko kontu-ematea barne.

X. Memoria demokratikoaren politikak indartzea, arreta berezia jarritz memoria berreskuratzeko lanari eta ETaren terrorismoaren eta Estatuaren terrorismoaren biktimei arreta emateari. Belaunaldi gazteenei memoria historikoa eta demokratikoa ezagutaraztea, hezkuntza-curriculumetik edo komunikabide publikoetatik abiatuta, giza eskubideen urraketa oro etikoki arbuatuz. Desberdinen gorrotoa eta gizatasuna galtzea gure hitzekin eta ekintzekin zokoratzea. Elkarrekiko errespetua indartzea eta demokrazia batean areririk ez dagoela ezartzen duen printzipioa defendatzea. Aurkari politikoak baino ez dira, eta horiekin saiatu behar dugu Herri osoari mesede egingo dioten akordioak lortzen.

XI. Elkarriketa sustatzea, polarizazioari uko egitea esku-hartze politikorako tresna gisa, eta populismoari aurre egitea birsorkuntza demokratikorako proposamenen bidez, espazio publikoko buloak zehatzeko eta desagerrarazteko.

XII. Erakundeak *ad intra* antolatzeko eredu kooperatibo bat finkatzea, bere konplexutasuna errespetatuz, aitortutako eskumenak gauzatzean funtzionaltasuna, efikazia eta efizientzia bermatuko dituzten koordinazio-mekanismoak txertatuko dituena.

6.4 Zientzia eta ezagutza

I. Eskura dagoen gizarte-ezagutza identifikatzea eta elkarriketa bidez erabakiak hartzeko prozesuetan modu eraginkorrean parte hartzea.

II. Ikerketa, berrikuntza, etengabeko hobekuntza eta prestakuntza ekonomia zirkularraren eta 5.0 industria iraunkorraren paradigmatarako beharrezko eraldaketaren sektore nagusi bihurtzea.

III. Hezkuntza-sistemaren eta produkzio-sistemaren arteko lotura hobetzea, lanbide-profilak aurrera eramateko eta prestatzeko gai izango den prestakuntza prediktiboa sustatzeko, gaitasunetan eta konpetentzietan oinarritua. Kalitatezko lanbide-heziketa duala garatzearen aldeko apustuari eustea. Prestakuntza horrek prestigioa izan behar du, eta Euskadiko industria-ekoizpeneko premiei erantzun behar die. Irekia eta integratzailea izan dadila,ekoizpen-sarean erraz eta arintasunez sartzeko aukera emanaz.

IV. Prestakuntza aplikatua Europa mailan indartzea, enpresei, unibertsitatei eta I+G+b zentroen arteko loturaren bidez produkzio-sareari eta gizarteari irtenbideak emateko.

V. Euskal unibertsitate-sisteman ere prestakuntza dualaren aldeko apustu garbia egitea. Sistema parte-hartzaileagoa bultzatzea, euskal gizartearen eragile nagusi eta estrategiko gisa eta berrikuntzarako, lurraldearen egituraketarako, gizartean aurrera egiteko eta kohesiorako eragile gisa, bai eta eremu teknikoetan eta profesioetan euskara sustatu eta ezartzeko eragile gisa ere. Goi mailako hezkuntzan eta hezkuntza profesionalizazioan aurreikusten diren zeregin sozialek baliabide gehiago eskatzen dituzte. Besteak beste, soldata- eta lan-baldintza erakargarriak eta lehiakorrak, azken urteotan ikusten ari den talentu-galera saihestuz. Euskadik unibertsitate-politika propioa garatu behar du, Herriaren beraren helburu estrategikoekin bat datorrena.

VI. Beste herrialde batzuekiko truke-mekanismoak indartzea eta euskal gizartea talentua babesteko, erakartzeko eta berreskuratzeko gune bihurtzea.

VII. Teknologia eta ezagutza disruptiboen garapen kontrolatua eta fidagarria ahalbidetzen duten ekintza guztietan laguntzea, hala nola Adimen Artifiziala, Konputazioa, bio zientziak, jasangarritasuna... balio erantsi handikoak baitira. Euskadik lider izan behar du Adimen Artifizialari buruzko Europako Legea eta beste ezagutza-iturri batzuk ezartzerakoan, EBko arauak eta estandarrak garatzen lagunduz eta "sandbox" bat, "proben ingurune" bat, sortzeko aukera baloratzuz, AA alorrean enpresa- eta gizarte-ekosistema baten garapena indartuko duena.

VIII. Zientzia eta teknologia aldarrikatzea bidezko trantsizio energetikoa garatzeko erabakiko ditugun irtenbideen oinarri gisa, erakunde publikoek bermatu behar dituzten irizpide etikoekin bat etorritik, eta ideologiak eremu horretan duen zeregina mugatzea.

6.5 Gizartearen eraldaketa

I. Gizarte-justiziaren garapen bidean sakontzea, pobrezia- eta bazterkeria-arriskuak murrizteko, gizarte-despreekotasun eta desberdintasun-eremuak eta -poltsak minimizatzeko. Pertsona guztiok ditugun eskubide eta betebeharrak buruzko kontzientziazioa oinarritzeko da gizarte justuago bat lortzeko.

II. Oinarrizko eskubideak babesteko tresnen baliozkotasuna aldarrikatzea, botere pribatutik eta agintari publikoen gehiegikerietatik babesteko tresna gisa.

III. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea, aukera-berdintasunaren eta oinarrizko eskubideen errespetuaren zerbitzura dagoen tresna izateaz gain, lehiakortasun-faktore gisa. Sexuagatiko, arraza- edo etnia-jatorriagatiko, erlijio edo ideologiagatiko, sexu-orientazioagatiko, genero-identitateagatiko, adinagatiko, desgaitasunagatiko edo edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatiko diskriminazio mota ororen aurkako borroka indartzea. Sexu- eta genero-aniztasunaren aitorpenean sakontzea, LGTBI kolektiboaren diskriminazioaren aurkako borroka indartuz, bereziki TRANS kolektiboarena.

IV. Interes pribatuaren eta publikoaren arteko tentsioari buruzko hausnarketa sakona bultzatzea. Sektore pribatuak bere jardueraren dimentsio komunitarioa adieraz dezan laguntzea, erantzukizun sozial korporatiboa aktiboki gauzatuz.

V. Sare sozialetako trafikoak gobernatzen dituzten algoritmoen gardentasuna bultzatzea, eta datu pertsonalen babesari buruzko Europako irizpidea zibersegurtasunean erabat sakontzeko lana egitea.

VI. Mendekotasun digitalei eta horiek osasun mentalean, prozesu kognitiboetan eta sozializazioa gertatzen den agertokietan dituzten ondorioei aurre egitea.

6.6 Erakundeen lana eta aliantza politikoak.

I. Europako proiektu politikoaren sorrerako balioak defendatzeko eta bultzatzeko lanean EAJ-PNVren zeregina bultzatzea.

II. Gure parlamentu eta batzar nagusien legegintza-ahalmena sendotzea eta sakontze lana egitea, helburu politiko komunak eta garatzeko eta eguneratzeko dauden helburu berriak koordinatuz, betiere gure balioak zainduz eta negoziazioetan horiek azpimarratuz.

III. Estatuarekin egindako itun berriari buruzko barne-akordio bat lortzea, gure nazio-aitorpena eta aldebikotasuna jasoko dituen, leialtasun instituzionalaren eta akordioa betetzearen berme gisa. Hori urrats estrategikotzat hartuta.

IV. Foru-eskubide historikoen baliozkotasun juridikoa zabaltzea, gure esparru juridikoa erakunde-esparruan barne mailan, estatuan eta Europan egokitzeko tresna gisa.

V. Ekintza instituzionalean sakontzea Estatuan eta Europan, gure jarrerak behar bezala ordezkatuta eta aitortuta egon daitezen. Ahots, erabaki eta nortasun propioarekin. Makroeskualde Atlantikoa (3. txostenean garatua) eta nazio konstituzionalak eta eskualde elkartuak Europa mailan aintzatestea bultzatzea.

VI. Euskal nazioaren Europako ondarea defendatu eta bultzatzea. Autodeterminazio-eskubidea gauzatzeko dugun proposamena sendotzea Europar Batasunaren esparruan, EAJ-PNVk formulatu eta proposatutako Argitasunari buruzko Europako Legea oinarritzat hartuz.

VII. Estaturik gabeko Europako hainbat naziotako eurodiputatuekin adostutako autodeterminazio-eskubidea EBn gauzatzeko erregelamendu-proposamen artikulatua garatzea.

VIII. Batasunaren itunak aldatzea defendatu eta bultzatzea, Europaren Etorkizunerako Konferentziaren (COFUE) ondorioetan oinarrituta.

IX. Europako arauen transposizioa euskal erakundeen eskumenei kalte egiteko erabiltzen ez dela kontrolatzea.

- X.** Euskara nazioartean babestea hizkuntza gutxitua eta Euskal Herriaren eta gizadi osoaren ondarea den aldetik. Sektore publikoan eta gizarteko esparru guztietan euskararen erabilera sustatzea.
- XI.** Aliantzak garatzea Europan eta nazioartean, duela 20 urte Europako Alderdi Demokrataren bazkide sortzaileetako bat izateak ematen dizkigun aukeren bidez.
- XII.** Politika- eta erakunde-mailan bazkide berriak eta lankidetzak aukerak identifikatzea, nazioari, subiranotasunari eta nortasunari buruzko gure proposamenei atxikimenduak gehitzeko eta Europa mailara igotzeko. Nazioartean babesleak erakartzen jarraitzea.